



**HAL**  
open science

## ”Ternuaco Penac” deitu idazkiaz zenbait ohar

Aurélie Arcocha-Scarcia

► **To cite this version:**

Aurélie Arcocha-Scarcia. ”Ternuaco Penac” deitu idazkiaz zenbait ohar. Lapurdum, 1998, III, pp.103-123. artxibo-00516283

**HAL Id: artxibo-00516283**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00516283>**

Submitted on 9 Sep 2010

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L’archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d’enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

A. ARKOTXA-SCARCIA

## TERNUACO PENAC DEITU IDAZKIAZ ZENBAIT OHAR

### Résumé - Quelques remarques sur le manuscrit *Ternuaco Penac* [*Les peines de Terre-Neuve*].

Le manuscrit MS 97 du Musée Basque de Bayonne est constitué par un ensemble de textes poétiques d'origine diverse dont beaucoup sont anonymes et non datés. Le tout a dû être rassemblé entre la fin du XVIII<sup>e</sup> et les toutes premières années du XIX<sup>e</sup> siècle, puisque le carnet, outre la mention *Quelques vers anciens et nouveaux*, porte la date de 1798 et qu'à la fin de la *Table des Matières* (Aurkhibidea), figurent deux poèmes datés de 1802 et 1808, ce qui fait supposer l'intervention d'un autre copiste au plus tôt en 1808.

Le carnet a été édité dans sa totalité pour la première fois en 1986 par P. Urkizu. Au sein de ce premier corpus, la trilogie formée par les trois textes consacrés au voyage des pêcheurs de Terre-Neuve occupe une place à part. Ces textes évoquent les conditions terribles du périple et du séjour, d'où le titre de la trilogie: *Ternuaco penac*.

Il convient, au préalable, de présenter le manuscrit en le situant dans un cadre historique allant de la fin du XVII<sup>e</sup> à 1763 (Traité de Paris et fin de la Guerre de Sept Ans). Dans un second temps, une étude comparative des trois versions imprimées de ces dernières années (1986, 1987 et 1991) parues dans trois éditions, dont une bilingue basque/espagnol établie par G. Elortza en 1987, permet de mettre en lumière les variantes, tant il est vrai que ces versions ne sont pas identiques.

Il apparaît ainsi que les éditions de 1986 (A) et 1987 (B) présentent des différences (au niveau de la lecture et de la prise en compte des paratextes essentiellement) par rapport au texte d'origine (0), une reproduction intégrale du manuscrit étant présentée pour la première fois dans sa totalité ici en annexe.

Seule cependant l'édition de 1991 (C) s'éloigne radicalement du texte original, non seulement parce que le texte en a été modifié mais surtout par l'ampleur des carences constatées (strophes absentes ou amputées pour le premier texte de la trilogie) et la non prise en compte de la version Elortza parue en 1987 dans *Itsasoa III*, par exemple.

*Ternuaco Penac* deitu idazkia 1986-an P. Urkizuk lehen aldikotz argitaratu<sup>1</sup> zuen Baionako Erakustokian dagoen eskuz ixkiriatu kantu bilduma osoarekin batera. G. Elortzak ere, 1987an argitaratu zuen, gaztelerara itzulua, *Itsasoa III*<sup>2</sup>

liburuan. Biek azpimarratzen dute J. Haritschelhar orduko euskal erakustokiko zuzendariari nola M. de la Sotak 1966an eman liburutegian zagon bilduma hori. J. Haritschelharren ustez, oraikoan dugun kantu bilduma zaharrena :

*“Liburu honetan [P. Urkizuren edizioaz mintzo da] argitaratzen den kantu bilduma, nik dakidanez bederen, daukagun zaharrena da, XVIII. mendearen azken urtetakoa, 1798koa. Hala salatzen dauku tituluak diolarik aurkitzen direla bertu zahar eta berriak. Gehienak ez ezagunak dira, iparraldekoak noski.*

*Esku izkribua Baionako Euskal erakustokian dago Manu de la Sota-ren ganik etorria...”*<sup>3</sup>

Bizkitartean, eskuizkribuaren aipatzeko orenean ezberdintasun batzu agertzen dira bi ikerlarien artean. Biek karnetaren neurri ezberdinak ematen dizkigute, adibidez :

*“Museoko eskuizkribu honek 155 mm. x 110 mm. neurtzen dituen liburuskat bat osatzen du.”* (G. Elortza. 1987, 277)

*“Ehun eta hamaika orrialdedun liburutto honen neurriak 107 mm. zabalera eta 154 mm. luzera dira.”* (P. Urkizu. 1986, 15)

Halaber, Baionako kahierrean den koplen kopuruaz ez daude arras bat :

*“Ternuako bertso-saila bakartzat hartuz gero, 29 poema ditugu, baina hiru direla kontsideraturik, 31 ateratzen dira.”* (Elortza. 1987, 279)

P. Urkizuk, berriz, G. Elortzak aipatzen ez duen *Aurkhibideaz* zerbait dio baina ez du hau bere liburuan agertzen ; ez du ere azaltzen zertako *Aurkhibidean* 27 koplak agertzen diren eta berak agertzen duen edizioan, berriz, 29 :

*“Aurkibide bat ere badu 98. orrialdean 27 poemak zerrendarekin.”*

Horiek horrela direla eta, testu horiei behako bat eman diezaiegun ikusteko, lehenik, zertako *Ternuaco Penac* izenburupean ezar daitezkeen hiru itsasoko kantu ezberdin (bakar batek baitakar *Ternuaco Penac* izenburua) ; bigarren, gora-go aipatu 1986, 1987ko bertso inprimatuen konparaketa eginez, bi argitalpen horien arteko ezberdintasunak zein diren ikusteko, gehituko diegularik 1991ean agertu *Bertsolaritzaren Historia-I-*, itsasoko kantu horietaz liburu honetan atera den azken bertsoia eztabaidagarria baita arras.

## 1 - Idazkia :

### 1-a : *Aurkhibideaz* :

Urrunago joan baino lehen, ikus ditzagun, zehazkiago, aipatu kantuak eta azal dezagun zertako hirukote/trilogia bat osatzen duten.

Jadanik erran bezala, hiru dira aztergai ditugun idazkiak<sup>5</sup> : lehenik, *Partiada tristea*, *Ternuara*, zortzi silabako 20 laukoz (A/A/B/B/) osatzen dena, bigarrenik, *Itsasoco Perillac*, hau ere zortzi silabako 20 laukoz (A/A/B/B/) eraikia, eta, azkenik, *Ternuaco Penac*, zortzi silabako 13 laukoz (A/A/B/B/)<sup>6</sup>.

Bildumaren arkitekturak berak ematen ote digu hiru kantu horien elkartzeko arrazoirik ?

Gogoaraz dezagun, lehen, G. Elortzak diona :

“*Hiru poemok bakarrean nahiz batera irakur daitezke, bakoitzak osotasun aski baitauka eta hiruren artean batasun sendoa osatzen dute.*” (G. Elortza. 1987, 278)

Bizkitartean, batasun hori, itsasoko kantu horien *kopiatzaileak berak* finkatzen du *Aurkhibidean* hiru kantuak izenburu bakar baten pean ezarriz. Ohar gaitzke, gainera, *Aukhibidean* eta bildumaren barnean diren izenburuen artean aldakuntza ortografikoak badaudela<sup>7</sup>, eta ere ezberdintasunak, zenbait aldiz aldatzen baitira<sup>8</sup> ere, etab.

Hona *Ternuaco Penac* nola agertzen den bilduman dagon *Aurkhibidean* :

“*Gaucen Aurkhibidea/Ternuaco penac, depuis le jusqua lle*”

### ***1-b : Idazteko garaiaz egin daitezkeen gogoetak :***

Kantu horiek behin eta berriz kopiatuak izan daitezke eta, behar bada XVII. mendekoak dira, gisa guziz ez preseski XVIII. mende ondarrekoak bildumak dakarren 1798 urteari fidatuz. Horretarako hiru arrazoi : lehen, ikustea bilduman badirela 1798a baino aise lehenagoko kantuak, adibidez, Louis XIV-ari eskainia dena haren heriotza (1715) baino lehenago idatzia izana da, gero, *Aurkhibidean* bigarrenik kokatzen den, *Çarrantçaco Penac* idazkian Ternuako Plazentzara heltzea aipatzen denez, nahi ta ez 1713a baino lehenagokoa da<sup>9</sup> hau ere :

“*Aphirillac cituen justu hemeretci  
noiz ere baiquinduen zundaz ardietsi,  
bazco egun handian guinduen atheratu,  
biaramunean Placentçan barnan sartu.*” (URKIZU 1986, 105)

Azkenik, kantu horietan den giroa ez da batere ere bildumak dakarren *Ternuaren premia. Franchisaren caltea Laphurdin*<sup>10</sup> idazkian dagona, gogoan ukanez kantu hau 1790/91 urteetakoa dela, urtemuga hau baitaio gehitua :

“*Goizportuac*<sup>11</sup> *khorracan, Sn Pierrac*<sup>12</sup> *herren,  
Belilla*<sup>13</sup> *candelan da bai eta hil hurren ;  
costatarrac beçala Laphurdi gucia  
franchisaren azpian datça ehortcia.*”<sup>14</sup>

Ez dezagun ahantz halere, 1713ko Utrechtoko hitzarmena aitzin, XVII. mende bukaerako urteak ez zirela batere bakezkoak izan Ternuan, bereziki Ingeles eta Frantsesen artean : 1600ean Plazentza (*Placentça, Plaçentça* Detcheverryrentzat, gaur *Placentia*) Ingelesek xehatu zuten, 1696an Frantsesek Ingelese berriz hartu... 1713ko Utrechtoko tratatuaren ondotik egoera aldatu zen, baina Frantsesendako kalteak handiak izan baziren (ikus E. Ducéré<sup>15</sup>), zer erranik ez erresuma espainolean ziren Gipuzkoa eta Bizkaiarendako.

Urrunago joan gabe azpimarratu behar da Utrechtoko hitzarmena aitzin Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaiak beren bi gobernuen bitartez *conversa* frango muntatu zituztela harreman komertzialen onetan ; erran beharra dago ere borroka anitz bazela batzutan bi alderdietako marinelen artean (gogora Hendaia eta Hondarribiaren artekoak, adibidez) baina, denen onetan eginak ziren hitzarmen

premiatsu horien berritze eta irauntaraztea oinarrizkoa zen itsas bazterreko jendeentzat eta iraun zezaketen batzutan Espainia eta Frantziaren arteko gerlen gaitetik :

*“Una tradición documentada muy antigua”, dio M. Ciriquain Gaiztiarrok “abonó que tanto la una (la provincia de Guipúzcoa) como la otra (el señorío de Vizcaya) negociaran tratados de concordia- “conversas”, se les llamaba así en los documentos-, con la provincia francesa de Labort, debidamente autorizados por las Coronas, aunque sus países estuvieran en guerra, entre ellos, lo que les permitió mantener relaciones comerciales para su mantenimiento en medio del fragor de las lombardas y los cañones. Fueron muchas las concordias celebradas, al efecto, a través del tiempo. Durante la guerra mantenida entre España y Francia, después de la Liga de Augsburgo (1686), los guipuzcoanos y los viscaínos disfrutaban de una de estas concordias con los labortanos, aunque los franceses se dispusieran a invadir Cataluña.”*

Bizkitartean, 1690ean, Espainiako gobernuari ez zitzaion iduri Gipuzkoa eta Bizkaikoek *conversa* errespetatu behar zutela:

*“...haberse servido S.M. prohibir, por ahora la concordia o conversa que en otras ocasiones de guerra permitía ajustar con la provincia de Labort.”<sup>16</sup>*

Halere goiti behera batzu bane, *conversa*, oro har, atxikitzen da<sup>17</sup>, 1693 ko Bergarako Junta Generalek diotelarik :

*“Habiendo conferido largamente todo lo que por disposición de la N. y L. villa de Azpeitia se ha discutido entre los Caballeros Comisarios de V.S. y los del Señorío de Vizcaya, sobre las necesidades que padecen los naturales y habitantes de ambas provincias, por la suspensión de la Concordia que con el permiso de S.M. suele asentarse y practicarse entre V.S. y la provincia de Labort, en Francia, para la comunicación recíproca de frutos de ésta y aquella provincia, y para la seguridad de todas las embarcaciones de ellas en sus navegaciones (...)”<sup>18</sup>*

Eta Juntek berriz eskatzen dute *conversa* :

*“que como entre provincias tan principales y tan empeñadas con los vínculos de parentesco y amistad, siempre han profesado V.S. y el Señorío de Vizcaya, y que en disposición tiene resuelto la Diputación del Señorío, se solicite con grande esfuerzo el beneplácito de S.M. para que se sirva de conceder a ambas Provincias el uso de la Concordia que, en las ocasiones antecedentes de la actual guerra se ha permitido con los Labortanos (como precisa para el sustento y conservación de los Naturales de V.S. y del Señorío) y que para su mayor y mejor efecto conviene vayan a la Corte dos Caballeros uno de cada parte, que con instante y eficaz súplica obtengan esta gracia de S.M. en nombre y con representación de ambas provincias.”<sup>19</sup>*

Juntek eskatzen zutena lortu zen, 1694ean Baionako kapitain merkatariek izenpetu dokumentua hor dugu lekuko (*et de prendre “des Espagnols quilz jugeront à propos de mélér parmi leurs Equipages”*)<sup>20</sup> eta ere 1695eko Mutrikuko agiri bat :

*“...la ciudad de San Sebastián pidió a la Junta cartas a favor para la ciudad de bayona, pronvincia de Labort, y Duque de Agramont, para que se concediese*

*libertad a los dos navios de dicha ciudad apresados por una fragata francesa que al presente se hallan en el puerto de Nantes, La Provincia se las concedió.*<sup>21</sup>

Halere, 1696 eta bereziki 1697tik goiti Ternuan zaila izanen da Gipuzkoar eta Bizkaitarrendako arrantzako lanetan bakean ibiltzea. 1697ko urtarrilaren 30ean Versaillesen idatzi nota batek dio kolonia frantsesarenak diren portuetan kanpotarrek ez dutela libro arrantzan ibiltzea, Frantziako erregek espainol untzi batzu Plazentzako bazterretan basebiltzela jakin zuelakotz. Notak pasarte batean dio<sup>22</sup> :

*“Los españoles se hallan así imposibilitados para continuar con la navegación en Terranova porque sólo se dejan libres los puertos de la Canal y el pasar por éstos se consigue pocas veces porque la entrada de la Canal muchas veces se ha hallado de bancos de nieve y otras veces se la pesca por el largo pasaje y como se dice precuando (?) del recurso de poder volver a los puertos de Sta Mariá y Sn Lorenzo y otros que están a poca distancia de Placencia, será muy factible que un navio, de cuatro viajes no logre uno, como lo saben todos los franceses.”*<sup>23</sup>

Baina Gipuzkoako marinelek ez zuten trenpea galdu ; kapitain eta bandera frantsesarekin joaten ziren 1698/99 eta 1705ko dokumentu batzuk dioten bezala, “turkoetaz” beldur zirela :

*“... el navio San Juan Bautista perteneciente a don Domingo Pérez de Isaba, difunto, vecino que fue de esta ciudad y a otros naturales de ella, siendo su capitán Domingo de Mirandola, salió del puerto de esta ciudad para su viaje a Terranova, a la pesquería del bacallao, por el mes de Abril de año 1705 llevando por precaución de los turcos capitán de la bandera francesa ”*<sup>24</sup>

Utrechtoko hitzarmenak egoera zailago bihurtarazi zuen. Baina Frantziak, urte andana batzuek baldin bazen ere, Ingalaterrarekin antolamendu bat atxeman zuen Ternuako itsasbazterretan egiten zen arrantzaz. Ingalaterrak Ternuako ekialde eta hegoaldeko eremuak arras zaintzen baldin bazituen ere, Frantsesak (eta beraz Lapurdikoak) sartaldean basebiltzen, 1713 baino berantagoko Joanis de Hiribarrenen kartak erakusten duen bezala<sup>25</sup>. Gipuzkoa eta Bizkaitarrentzat berriz, kaltea ikaragarria izan zen jadanik 1713an ez baitzuten deus ateratzen ahal izan hitzarmen horretarik.<sup>26</sup>

Erran beharra dago 27 urte geroago berriz piztu zela gerla Ingeles eta Frantsesen artean Aix-la-Chapelleko hitzarmenarekin bururatzu ; ondotik, 1756an Zazpi Urteko gerla hasten da bi partaideen artean eta 1763an gelditzen Pariseko hitzarmenarekin : Frantziak Ipar Ameriketako lurralde guztiak galtzen dituelarik salbu St Pierre eta Miquelon<sup>27</sup>.

Erran gabe doa Lapurdiko portuek jasanen zituztela ondorio gaitzak.

Utrechtoko hitzarmenaren ondotik bakailoaren arrantzak sekulako beherakada ezagutu zuen Donibane Lohitzune eta Baionako portuetan : 1635ean Donibane Lohitzunen 80 bakailoaren arrantzako untzi baldin baziren, 1716an bakarrik 11 gelditzen ziren...Halere, 1738an badira oraino 18 eta 1786an Baiona eta Donibane Lohizun 40 bakailoa-untzitara heltzen dira<sup>28</sup>.

Ternuako itsasaldeak ezin hobeak baitziren bakailoaren arrantzarendako, bereziki hegoaldean ziren hiru “Banc” edo “Banck”ak deituak ziren lekuak, han bakailoa-sarda handiak baitziren : *Banck of the Islands*, St Pierre eta Miquelon

itsas zabalean, *Verte Banck (Banc à Vert)* Plazentzaren hegoaldean den itsas zabalean eta *Main Banck (Le Grand Banc)*, guti gora behera *Cap d'Arras (Cap de Raze, de Ras* eta gaur *Cape Race*) -etik *Cap St François*-ra (gaur *Cape Saint Francis*) den lurraldearen itsas zabalean, han aurki baitzitekeen bakailao-sarda handiena<sup>29</sup>.

*Ternuaco Penac*-etan agertzen den egoera, dirudienez 1713ko urtea baino lehenagokoa da, gerla aipurik ez da, Ingelesak, adibidez ez dira aipatzen, bai ordea *Isquimaüac* ; halere, oraikoan<sup>30</sup>, ez daiteke deus behin betikorik erran, 1713 eta 1763a artean idatzia baitaiteke ere.

## 2- Idazkiaz egin izan diren agerketa inprimatuen konparaketa :

Gogora dezagun hemen aipatuko diren agerketak hiru direla A, B, C hizkiekin izendatuko direnak : A : 1986koa (P. URKIZU : *Bertso zahar eta berri* 1798), B : 1987koa (G. ELORTZA, *Itsasoa* IIIn.), eta C : 1991koa (J. GARTZIA, P. URKIZU, *Bertsolaritzaren Historia, Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak, I Anonimoak*).

Jatorrizko eskuzko idazkiari O ezarriko zaio O1 (*Partiada tristea, Ternuara*), O2 (*Itsassoco Perillac*) eta O3 (*Ternuaco Penac*) hiru kantuen izendatzeko erabiliko direlarik.

Irakurleak berak beha dezan, eranskinetan gehituko da jatorrizko eskuizkribua M. de la Sotak Baionako Euskal Erakustokiari (Musée Basque) emana<sup>31</sup> ; agerketa inprimatuen xehetasunak, berriz, bibliografian emanak izanen dira.

### 2-a : Bertso edo koplakondatzeko moldeaz :

O	A	B	C
O1 = 20 bertsu	O1 + O2 + O3	O1 + O2 + O3	O1 + O2 + O3
O2 = 20 bertsu	=	=	=
O3 = 13 bertsu,	53	209	53 (LIII)
kopiatzaileak	bertsu	neurtitz	bertsu
eskuz gehitzen			
ditu zenbakiak.			

### 2-b : Kantuen agertzeko moldeaz :

Jakiteko zein bertsutan diren aldakuntzak, izendatzeko molde hau hautatuko da : O2-4 (erran nahi da *Itsassoco Perillac*-en 4. bertsu); A24 (erran nahi da 1986ko *Bertso zahar eta berrin* 24. bezala agertzen den bertsu); B93 (1987ko *Itsasoa* IIIn 93. neurtitzaren zenbakiarekin agertzen den bertsu); C24 (ikus A24).

- O1 : Ohar gaitezke hastapeneko izenburua *Partiada tristea* bakarrik zela eta gero bertze esku batek gehitu zuela *Ternuara* (A, B eta C agerkarrietan ez da hori aipatzen). Ikus dezakegu ere O1en tituluaren azpian A. dagola (gero, bilduman *Ternuaco Penac* hirukotearen ondotik heldu den *çarrantçaco penac* kantuen azpian B. ezarriko duelarik kopiatzaileak). Seinale horiek azpimarratzen dute

kopiatzaileak hiru kantuek duten batasuna azpimarratu nahi izan zuela, B rekin bertze sail bati hastea emanez.

### 2-c : Agerketa inprimatuetan diren ezberdintasunetaz :

O	A	B	C
O1-14 : “ <b>Jaunac diçula gracia</b> ”	A14 : “Jaunac diçula gracia”	B53 : “Jaunac <b>digula</b> gracia”	CXIV : “ <b>Jaunak</b> dizula grazia”
O1-19 : “ <b>maiñada haz çaizte onac</b> ”	A19 : “ <b>Maiñada</b> , haz çaizte onac”	B73 : “maiñada haz <b>çaike</b> onac (?)”	CXIX : “ <b>Mainada</b> , haz zaizte onak”
O2 (titulua) : “ <b>Itsassoco Perillac</b> ”	A21 (titulua) : “ <b>Itsasoo</b> co Perillac”	B81 (titulua) : “ <b>Itsassoco</b> Perillac”	C XXI (titulua) : Itsasoko Perilak
O2-4 : “ <b>beguiz ecin ikhus Larrun</b> ”	A24 : “ <b>Beguiz cein</b> ikhus Larrun.”	B93 : “beguiz ecin ikhus Larrun.”	CXXIV : “ <b>Begiz zein ikus</b> Larrun.”
O3-12 : “ <b>triste errain eroria</b> ;”	A52 : “ <b>Triste</b> , errain eroria,”	B205 : “triste <b>bezain</b> (?) Eroria ;”	CLII : “ <b>Triste</b> errain eroria,” <sup>32</sup>

### 2-d : C agerketan diren aldaketak eta hutsetaz :

C agerketan (*Bertsolaritzaren Historian* (1991)) kantuetaz egiten den bertsioa ez da bakarrik jatorrizko testutik gehienik urruntzen dena baina ere O1 (*Partiada Triste*, *Ternuara*) arras ondutzen eta itxuraz aldarazten duena.

Ortografia oraikotzen denez, “c”-ak, “k” bilakatzen dira, adibidez, baina, denbora berean : “Perillac”, Perilac”, eta “gilla”, “gila”, bi etsenplutan gelditzeko ; era berean, “Mariñelen”, “Marinelen” bihurtzen da eta, beti hor gelditzeko, “maiñadac”, “mainadac”... Kontsonanteen gibelatik diren “h”ak ere desagertzen dira, “senhar”-ek, “senar” ematen duelarik...

O1-2 -ren lehen neurtitza : “**Churi** garbi ceru gaiña”, “**Txuri** garbi zeru gaina,” (CII), bilakatzen da, era berean O1-10-en lehen neurtitzean den “**chumea**”, hitza, “xumea” idazten delarik...

O2-3-ren lehen neurtitza : “Itsasoaren **gañean**”, itsasoaren **gainean**” (CXXIII) bilakatzen da.

Baina, erran bezala, ezin sinetsia da ikustea zer bilakatzen den O1 *Partiada triste*, *Ternuara*-ren hastapena C agerkarian :

- hirugarren koplak “*Untcitic artilleria/.../*” falta da...

-laugarrena hirugarrenaren lekuan aurkitzen da eta gainera hirugarrenaren bi azken neurtitzekin...

*Ternuaco Penac* idazkiarekin egin den 1991eko agerketa inprimatuak argi eta garbi aitzinatze baten orde, gibelatze bat izan dela salatzen du, halaber, ikus dezakegu A eta B direla jatorrizko testutik hurbilenik ibiltzen direnak. Halere, azken bi agerketa hauetan, zenbait gauza ez dira beti agertzen. Barratuak diren pasarteak, adibidez, zenbaitetan seinalatzen dira eta bertze zenbaitetan ez (Ak eta Bk



ez dute agertzen O1-10ean “Adios”-en azken silaba barratua dela eta ondorioz “**Adi**” agertzen dela bakarrik, gauza berdina gertatzen delarik O1-11ean). Aldiz A agerketan nota batean agertzen **da** (ikus A39) O2-19an lehendabiziko bi neurtitzen erdiak barratuak direla : “*ez du deus pausuric*” dago ezabaturic” eta “*loth toquiric*” dago ezabaturik” (URKIZU 1986, 99).

Agian, lasterrezko ikuspegi honen bitartez ikus daiteke eskuz idatziak diren idazkien transkribatzea beti ahal bezein zehazki egin behar litekeela, berdin gertatzen delarik edizio agortu edo aspaldiko aldizkarietan sakabanatuak diren idazki inprimatuak berrinprimatzen direlarik.

### A. ARKOTXA-SCARCIA

*Bordeaux III, UPRESA 5478 - CNRS*

## BIBLIOGRAFIA :

CIRIQUAIN GAZTIARRO M. : *Los vascos en la pesca de la ballena*. Biblioteca de los Autores Vascos, E.V., San Sebastian 1979.

CARTIER Jacques : *Relations*. (1534-tik 1542-ra. Édition critique par Michel BIDEAUX. Les Presses de l'Université de Montréal, Montréal, 1986.

DEGROS (Mme Maxime) : "La Grande Pêche Basque des Origines à la fin du XVIIIe siècle", in *Bulletin de la Société des Sciences Lettres et Arts de Bayonne* n° 48 (avril-juin 1944), n°49 (juillet-décembre 1944) et n°50 (janvier - octobre 1945).

DUCÉRÉ Émile. : *La pêche de la morue et la découverte de terre-Neuve par les Basques et les Bayonnais*, Imprimerie - Stéréotypie, Garet, Pau 1893 (extrait du *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, 2<sup>e</sup> série, Tome XXII, 1892-1893).

EGAÑA - GOYA Miren : "XVI eta XVII mendeetako Canadako Ternua eta Labrador-eko euskal leku-izenen zenbait berri", in *Anuario de Eusko-Folklore, Eusko Ikaskuntza*, Tomo 32, 1984.

- "Les toponymes basques au Québec", in *Naturaliste Canadien*, Hydro-Québec, 1995.

- "Dans le sillage des morutiers basques du Moyen Âge : une perspective sur l'origine et la définition du mot *bacallao*", (en collaboration avec Brad Loewen), in *L'aventure maritime du golfe de Gascogne à Terre-Neuve*. Éd. C.T.H.S., Paris, 1995.

ELORTZA Gerardo : "Ternuako ohiartzuna euskal olerki gintzan", in *Itsasoa III*, Etor, Donostia, San Sebastian, 1987.

GARZIA Joxerra, URKIZU Patri : *Bertsolaritzaren Historia, Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak, I, Anonimoak*, Etor, Donostia 1991.

GOYENECHÉ Eugène : *Le Pays basque.. Soule, Labourd, Basse-Navarre*, Société Nouvelle d'Édition Régionale, Pau 1979.

HOYARSABAL Martin (Capitaine) : *Les voyages aventureux du capitaine Martin de Hoyarsabal, habitant de çubiburu. Contenant les Reigles & enfeignemens neccessaires à la bonne & Seure Navigation*. A Bourdeaux. Par Gvillavme Millanges, Imprimeur ordinaire du Roy. M. DC. XXXIII. (Hau hirugarren argitalpena da, Ichuna, Bordelen, 1579-an, egin zelarik).

HOYARZABAL Martin/DETCHÉVERRY Piarres (Dorre) : *Liburuhauda Jxasoco Nabigacionea. Martin de Hoyarabalec egiña Francezes Eta Piarres Detcheverry edo Dorrec efcararat emana. Eta cerbait guehiago abançatuba*. Bayonan. Fauvet, Imprimerian Carmeffeteco aldean DC. LX-X V II.

Edición facsímil de 350 ejemplares, Txertoa reprints, San Sebastián, 1985.

HUXLEY-BARKHAM Selma : "Los vascos y las pesquerías transatlánticas, 1517-1713", in *Itsasoa III*. Etor, Donostia-San Sebastián, 1987.

- *The Basque Coast of Newfoundland*. Great Northern Peninsula Development Corporation, 1989. m

LAHONTAN : *Œuvres complètes*. [1702 eta 1703 artean]. Édition critique établie par Réal OUELLET avec la collaboration d'Alain BEAULIEU. Les Presses de l'Université de Montréal, Montréal, 1990.

PONTET Josette : "Les équipages des corsaires bayonnais au XVIII<sup>e</sup> siècle" in *L'aventure maritime du golfe de Gascogne à Terre-Neuve*. Éd. C.T.H.S., Paris, 1995.

URKIZU Patri : *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma* (1798), Durangoko udala, Durango, 1987.

URQUIJO (Julio de) : "Versos al Dr. Ducos.", in *R.I.E.V. XV* (enero-mayo 1923).

- "El vascuence de San Juan de Luz", in *R.I.E.V. XIV* (abril-junio 1924).

## Notak

1. P. URKIZU : *Bertso zahar eta berri (1798)*. Durango 1986.

2. G. ELORTZA : “Ternuako arrantzaren oihartzuna euskal bertsozaintzan.”, in *Itsasoa III*, 1987, 277-286. Autoreak liburu horretan berean agerrarazten du ere kahierrean dagon bertze kantu bat : *Ternuaren premia. Franchisaren caltea laphurdin*, vers 1790 ou 91. Hau J. Urquijok *RIEVEN* 1924ean lehen aldikotz argitaratua eta Joanes Etcheberri Ziburukoaren baleazaleen otoitzetan ezagunenak diren pasarteak.

3. J. HARITSCHELHAR in P. URKIZU : *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*...

4. G. ELORTZAK gogoarazten du trilogia bat dagola Ternuari buruz Baionako 1798 ko kahierrean. Hiru kantu horiek direlarik : *Partiada Tristea Ternuara, Itsassoco Perillac eta Ternuaco Penac*.

5. Ikus 4. nota.

6. Eskuizkribuak erakusten duen bezala, kantu honen azken bertsuaren ondotik norbaitek gehitu du “13”, bertsu kopuruaren gehiketaren finkatzeko, gainerakoen bururapenetan “20” pertsona berak gehitu duen bezala. Ikus eranskinean emana den jatorrizkoaren fokokopia.

7. Adibidez, kahierraren barnean aurkitzen den *çarrantçaco penac* kantua, Aurkibidean *Zarranzaco penac* bezala idatzia ikusten da.

8. Adibidez, *Ste Rose, Bouquet à Me Luuznabar*, Aurkibidean Sa. Rosa, *Zuaznabar*, agertzen da.

9. 1713.ko Utrechtoko tratatuaren ondotik Ingelesen eskuetan gelditzen da Plazentza. Mugaren bi aldetako euskaldunak, erran nahi da Lapurdi Gipuzkoa, Bizkaiakoek (nahiz hauek neurri guttiago batekin) aspalditik Ternua hugoaldeko eremu haietara joateko ohidura zuten eta han aurkitzen ditugu. Baina XVII. eko azken urteetako idazki batek erakusten du zer giro zen Plazentzan hamazazpi urte lehenago, ikusiko denez, gero eta zailago zen Plazentzan bakean bizitzea. Idazkia XIX. mendean kopiatu zen.

Jatorrizko 1694ko dokumentuak kondatzen du nola zortzi merkatari (sei Baionakoak, bi Donibane Lohitzunekoak) eta lau Donibane eta Ziburuko kapitain erregeren notarioaren aitzinean presentatu diren Louis XIV. ak eskaintzen zizkien abantailak eta zizutzen eginbeharrak zein ziren ofizializatuak izan zitezkeen kontratuaren bidez ; XIX. mendean erantsi zen notak zioenez hamabi kapitainak (“dont six de Bayonne commerçants, et six de St Jean de Luz, et Ciboure) Plazentzako herriaren laguntzera baitzihazozen (“pour ravitailler la colonie de Plaisance”). 1694.ko otsailaren 16ko idazkiak hastapenetik, kapitainen izenak eman eta gero azpimarrazten du hauen engaiamendua :

*“qui se sont engagé à porter à la colonie de Plaisance les secours de vivres, et munitions nécessaires pour la subsistance de la dite colonie. Les dits traitants s’obligent de payer au gouverneur et à l’Etat Major de la Garnison du dit Plaisance leurs appointements soit en argent effectif, soit en munitions ou vivres (...). Ils lèveront à leurs dépens, une recrue de 40. Bons Soldats qu’ils passeront au dit Plaisance, et leur payeront leur solde d’une année soit en vivres soit en habits (...).*

*Moyennant les quels offres et conditions S.M. leur fournira au port de Rochefort, une de ses frégates de 30 à 36 pièces de canons pour user d’armes (...) et aparaux et munitions de guerre, tant pour l’armement que pour la recharge, bien carennée et prête à mettre à la voile et une flutte au Port de Bayonne armée de 20 canons et pareillement pourvue de toutes les munitions et agrès nécessaires pour sa navigation des quelles frégattes et flattes (...).*

*S.M. leur permettra pareillement d’armer à leurs dépens deux autres flattes à eux appartenants pour aller faire la pêche ou la troque au dit Plaisance ainsi qu’ils aviseront bon être, et leur fournira des Commissions en Guerre, pour les Capitaines qu’ils mettront sur les dites frégattes et flattes.*

*S.M. leur permettra pareillement de lever par préférence les équipages des dites 4 flattes dans le département de Bayonne de matelots qui ont été l’année 1693, à son service, et des invalides et de prendre des Espagnols qu’ils jugeront à propos de mêlér parmi leurs Equipages, pour épargner les matelots qui doivent servir sur l’armée navale pendant la présente année.*

*En cas qu’en allant pendant leur séjour, où à leur retour du dit Plaisance, les dits 4 vaisseaux fassent quelques prises sur les ennemis de l’Etat, les dites prises seront entièrement au profit des dits traitants, sans que S.M. puisse y prétendre.*

*Et d’autant que les dits traitants payeront et nourriront à leurs dépens tous les Equipages des dits 4 Batimens, ils auront une pleine et entière liberté d’en disposer pour leur pêche course où autrement ainsi qu’ils aviseront bon être pour le bien de leurs affaires sans que le Gouverneur du dit Plaisance, où autres officiers en puissent aucunement disposer, S.M. leur permettant de rester au dit Plaisance tant qu’ils avi-*

*seront bon être pour le bien de leurs affaire (sic), et de charger à leur Retour, toutes les morues, huilles et autres marchandises qu'ils auront et de faire leur retour dans tel Port de France qu'ils aviseront bon être, à la charge de remettre à Rochefort où à Bayonne les dites frégattes et flutes de S.M. sauf les risques, perils et fortunes de la mer et de la Guerre (...)*" (Baionako Liburutegi Munitzaleko 285 zenbakia duen artxi-boa)

Idazki interesante honen bitartez ikus dezakegu, lehenik, nola XVII. ondarrean untxiak bakailoaren arrantzan (truketa ahanzi gabe) eta L. XIV. arendako kursan badabiltzala, Estaduaren politika eta lekukoaren grina komertzialak kasu honetan ongi ezkontzen direlarik (ez baitzen beti hala) eta bigarren, aipatuak diren "Espagnol"etan gehienak mugaz bertaldeko euskaldunak daitezkeela, nahiz ez menturaz denak, gogoan ukanez 63bat urte geroago, 1757an zer gertatzen zen Baionako Le Constant untxiarekin : " ...*parmi les volontaires figurent quelques étrangers. Les mieux représentés étaient naturellement et de très loin les Espagnols : ils formaient à eux seuls plus de 90/100 de ce groupe : parmi eux une majorité venait du Guipuzcoa ou de Biscaye, mais on compte une bonne proportion venue de toute le péninsule : de Jaca, Séville, Cadix, comme de Cantabrique...*" (J. PONTET, in CTHS, 1995, 407or.) ;

Giroa Plazentzan lanjerosa zen eta Ingelesen atakeak ardura gertatzen ziren. Plazentzan ari zen DET-CHEVERRI "DORRE" bere karten egiten 1689an, bortz urte lehenago : "*La generacion de Detcheverry" dio S. BARKHAMek "a finales del siglo XVII, era una de la últimas en gozar de un campo abierto en Terranova. Ya los dos grandes imperialistas, Francia y Gran Bretaña, batallaban entre sí por la supremacia de América del Norte (...)*"

Baina ikusten da ere Plazentzan garai haietan mugimendu anitz bazela : "*Placencia era el lugar donde se reunían corsarios, donde mercaderes de Boston vendían vituallas, bebida (...)*" (S. BARKHAM in Itzasoa III, 713)

10. Titulu hau J. de URQUIJOK, LARRALDE medikuaren kahierretik hartua du, kantu osoa bezala : "*En la lista de alcaldes (maires) de San Juan de Luz, figura el "Ducos" que nos interesa por haber ejercido dicho cargo los años 1790-91 y el año V. Al mismo personaje se refieren los siguientes versos que tomó del cuaderno del Dr Larralde.*", in "Versos al Dr. Ducos", RIEV XV, enero-mayo 1923.

P. URKIZUren edizioan, bertsu berak *Ducos jaunaren laudorioac* izenarekin agertzen dira, gehi nota bat "*Vers 1790 ou 91. Ternuaren premia. Franchisaren caltea Laphurdin* dio eskuizkiribuak goi eta behealdean.", in op. cit. 147-149.

12. Sn Pierrac gaurko St Pierre eta Miquelon irlak daitezke, erran nahi da Ternuako mendebal-hegoan direnak ; horrela dio DORREK : *Seguidandire Ternuago graduac./ (...)Sen-Pieretaco Irlac, 46 gradutan, eta hiru laurden*" (104/105.or.) ; "*Halaber Sen Pieretaco Columbia eta Miquelu portuco entrada nornoroest suduest eta dire batetic bertcera, 7. 1."* (106. or.) ; "*Halaber Sen Pieretaco Irlac (...)*" (106. or.)

Urrunago ongi agertzen da ez dela hor dudatzerik :

"*Sen Pieretaco Irlen eçagutcecoçat bi Irla handi direla eta bada Irla bata bercea baino handiago ceina deitzen baita Colombia eta baita esetican lecoa handibat Irla bañ ceina baita Irla berdea.*" (117 or.)

M. EGAÑA GOYAK dio : "*Oso bixia da idazleak behin eta berriz pluralean ipintzea Pierre izen berezia.*" (in "XVI eta XVII mendeetako Canadako euskal leku-izenen berri", 35 or.) baina ohartzekoa da gero, 1790/91ean *Ducos Jaunaren laudorioac*-etan berriz aurkitzen dugun plural hori aurki genezakeela jadanik frantsesez Jacques CARTIERen *Deuxième relation*-ean, 1535-36an, HOYARÇABALEn lana baino 25/26 urte lehenago :

"*Nous fumes esdictes illes saint Pierre o'y trouvames plusieurs navires tant de france que de Bretagne depuis le jour saint Bernabé Xie de Juin jusques au XVIe jour dudit mois que appareillames desdictes ysles saint ysles saint Pierre (...)*". (CARTIER.1986, 184)

Irla berdea, berriz gaurko St Pierre irlaren iparrean den irla ttipia, XVIII. mendeko frantses karta batean *I. Verte* bezala agertzen dena ez ote da horrela deitzen bakailao hezea (=berdea) -ren lan-molde eta arrantzatzeko garaiei lotu behar delakotz ? (ez du horrela pentsatzen M. EGAÑA GOYAK : "*mailegu hau, batzutan ferdea bestetan berdea agertzen zen landareen koloreetatik edo irten bide da.*" in op. cit. 36.or.). Bakailao hezearekin zer ikustekorik dute agian Ternuan diren bertze berde adjektibuarekin eraikiak diren toponimo batzuk : hala nola *La Baye Verte, Banc a Vert* etab.

Gogora dezagun bakailao hezea arrainari hertzeak kendu eta gatza botaz kontserbatzen zela, batzu bertzeen gainean metatzen zirelarik ; idorak baino gutiago balio zuen eta elzitekeen Europa hegoaldean aise kontserba. 1798ko kantu bildumari gehitu zaion 1802koa den *Miracullua ! Guetharian çaiçun* bertso hau aurki dezakegu :

"*Gure serorac arrantçaletaric/jateco daude arrain fin, ederric :salesen hertceac, bacallau heceac/bide tu horratuco, gueroçac guero,/astanteraiñ.*" (ikus URKIZU 1987, 175)

Teknikari buruz, ikus M. EGAÑA GOYA, B. LOEWEN :

"...la technique la plus importante était la pêche sédentaire où les pêcheurs s'établissaient sur la côte près d'un banc de morues, ils érigeaient abris et échafauds, sortaient quotidiennement en chaloupes pour la pêche, et séchaient la morue sur les échafauds ou simplement sur la grève. (...)

La deuxième technique, le pêche errante indique en quelque sorte l'adaptation de certains pêcheurs exclus des plages propices à la pêche côtière (sic). Le navire errait sur les bancs de morues, et le poisson pêché était évidé sur le même navire, pour y être ensuite arrimé en couches intercalées de grandes quantités de sel. Le produit, appelé morue verte, était à la fois plus périssable et moins cher que la morue sèche.

Finalement, on pouvait retrouver une technique de pêche et de livraison pratiquée en deux étapes. Comme pour la pêche errante, la morue était pêchée et évidée sur le navire. Elle était ensuite salée et mise en barriques pour se conserver provisoirement. Arrivées au port, les barriques étaient ouvertes, le poisson rincé et remis en barriques dans une nouvelle saumure." (in "Dans le sillage des morutiers basques du Moyen Âge : une perspective...", CTHS 1995)

Ikus ere S. BARKHAM ek diona :

"Es cierto que, a partir de 1547, se realiza un mayor esfuerzo dedicado plenamente a satisfacer la demanda de "grasa" de ballena en el mercado europeo ; el bacalao, mientras tanto, lo pescaban algunos miembros de la tripulación sobre todo para el consumo interior del barco. El bacalao fresco representaba una buena parte de la dieta alimenticia de los pescadores durante los meses que faenaban en Terranova, y durante el viaje de regreso hubieran podido comer el bacalao "verde", es decir, salado pero no secado." (in *Itsasoa III*, 60 or.)

St Pierre eta Miquelonekin jarraitzeko, gehi dezagun ETCHEVERRYK aipatzen duen *Miquelu*, gora-go aipatu 1677ko karteran den *Miqueloun* edo *Miquelon* daitekeela... Louis Armand de LOM D'ARCE LAHONTANGO baroi kaskoinak, berriz, hau zion :

"(...)Saint Pierre, l'île Percee & c sont des ports ouverts sans fortification, ni apparence d'i en pouvoir faire.", in op. cit., 1085. or.

13. P. URKIZUren ediziotik hartua da zitazioe hau, J. de URQUIJORENEAN aurkitzen da "Belita (?)". Aitzinago joan gabe erantsi dezagun LARRALDE eta URQUIJOREN bertsoiek badiutzitela ezberdintasunak : "Goiz portuac", "khurruca", "hurren" (in URQUIJO/LARRALDE). Ikus ere G. ELORTZA in op. cit. 285.

Erran beharra dago ez dela *Belita* izaten ahal, baizik eta *Belilla* edo *Belila*. Toponimo hau agertzen da DORREK, XVII. mendean, HOYARZABALEN 1579ko *Les voyages aventureux*...-etaz egin izan zuen itzulpen/moldaketan (ikus EGAÑA-GOYA : "en ce qui concerne Terre-Neuve il ajoute toute la côte ouest de l'île"), in CTHS, 1995, 57.

DORREK, adibidez, aipatzen ditu "Belilaco irla (*cap d'Arrastic eta cap de Graterano artean*) eta Belila baya ("*cap Gratic eta Grambayaco Irlaco arruac*" jarraituz aurkitzen dena). DORREREN 1677ko kartei edo mapei esker (ikus S. BARKHAM in *Itsasoa* 1987, 205,207), ikus daiteke liburuan xeheki aipatuak diren leku garrantzitsuenak ongi agertzen direla. Bi leku horiek gaur *Belle Isle* eta *Strait of Belle Isle* bezala agertzen dira kartetan (DORREREN kartetan : batean *Belysle*, bertzean *Belisle* irla.)

Baina bertze *Belila* (*Belysle* DORREREN kartan) bat badago, beheitiago, ipar-ekialdean, lehen Groy irla deitzen zen irlaren ondoan. Gaurko kartetan : *Bell Island* eta *Groais Island*, biak *Grey Islands* deitua ere.

Beti ekialdetik baina haise hegoago, *Conception Bayen* badago hirugarren irla bat *Bell Island* bezala agertzen dena gaur baina horrela agertzen zena XVII/XVIII. mendetan (ikus LAHONTAN II.1990,1187). DORREREN kartetan ez da agertzen.

Ez da ere ahanzi behar Frantziak Quiberon aldeko itsas zabalean, *Belle Île* (lehenko kartetan, *Belle Isle* edo *Bel - Isle*) izeneko irla bat baduela ; leku hau du J. ELORTZAK gogoan erraten duelarik : "*Belila/belita (?) (L) : Belle - Ile ; Bretañan ezezik, Canada aldean ere bada izen horrekin irla bat.*" (in *Itsasoa III*, 285. or.

Azken leku hau, LAHONTANGO baroiak dioenez, arras garrantzizkoa izan zen Ternuara zihozten eta bereziki Ternuatik zetozen untiendako :

"Cette Isle [Isle d'Orleans ez mintzo da] (...) n'est que trop éloignée de France pour les vaisseaux qui en viennent, car leur traverse dure ordinairement deux mois & demi, au lieu qu'en s'en retournant ils peuvent en trente ou quarante jours de navigation gagner aisément l'atterrage de Bel-Isle, qui est le plus seur & le plus ordinaire des Navires au long cours." (LAHONTAN I. 1990, 268-269).

Lau Belila baditugu beraz, hiru gaur Canadian den Ternuarenak eta bat Frantziarena. Zeintaz ari ote zaigu DUCOS jaunaren en laudorioac idatzi dituen koplakaria ? Ikusiz berehala "*Sn Pierrac*" aipatzen dituela, Ternuan den Belila batez ari zaigu.

14. Laukoaren gainerako bertze bi neurtitzek Ternuaren galtzea geroztik Lapurdik jasaten duen egoera latza dukete gai. Bertsu osoaren giroa arras dramatiko da, lehendabiziko bi neurtitzek azken hatsetan diren Ternuako portuak aipatzen dituztela, heriotzaren inguruko alor semantikokoak diren aditzek erakusten dutenez ("khorrocán", "herren", "hil hurren"...); gainerako biek Lapurdiko egoera tristea dute aipagai, 1784eko uztailaren 14eko ordenantzaren ondotik suntsituak gelditu baitira, "franchisa"k prezioak goititiaziti zitelakotz: "*Costatarrac beçala Laphurdi gucia/franchisaren azpian datça eroria.*"

15. "*C'était le commencement de notre décadence sur le nouveau continent. Louis XIV, obligé de signer la paix, accepta les conditions de l'Angleterre. Par le traité d'Utrecht (1713), nous cédions la baie et le détroit d'Hudson (sic), l'Acadie ou Nouvelle Ecosse ainsi que le côtes sud et est de Terre-Neuve, et la juridiction territoriale de l'île toute entière. La France conservait le privilège exclusif de la pêche sur la partie orientale des côtes, depuis le cap Bonavista jusqu'à la pointe la plus occidentale, puis, de là jusqu'au cap Riche, sur la côte ouest. Le traité interdisait à nos nationaux de fortifier aucun point à terre ou d'y ériger d'autres constructions que des cabanes de pêcheurs et des échafauds nécessaires à la pêche. En outre, ils ne pouvaient séjourner dans l'île passé le temps nécessaire pour sécher la morue.*" (DUCÉRÉ 1893, 5)

16. Ikus CIRIQUAIN GAIZTIARRO, *Los vascos en la pesca a la ballena*, 302.

17. Ikus CIRIQUAIN GAIZTIARRO, in op. cit., 302-303 or.

18. Ikus M. CIRIQUAIN GAIZTIARRO, in op. cit. 303. or.

19. Ikus M. CIRIQUAIN GAIZTIARRO, in op. cit. 303-304 or.

20. Ikus 9 nota.

21. Ikus M. CIRIQUAIN GAIZTIARRO, in op. cit. 304-305.

22. Ikus M. CIRIQUAIN GAIZTIARRO, in op. cit. 306-307.

23. Ikus CIRIQUAIN GAIZTIARRO in op. cit. 309 or.

24. Ikus CIRIQUAIN GAIZTIARRO in op cit 312 or.

25. Ikus S. BARKHAM in *Itsasoa III*, 168, 169.

26. Ikus CIRIQUAIN GAIZTIARRO, in op. cit. 314-327.

27. XVII eta XVIII. mendeen egoeraren ideiaran ukateko, eta supran *conversaren* inguruan erranaren osatzeko, gogora dezagun, 1686 eta 1697 (Ryswickeko bakearekin) artean Augsburgoko Ligan sartuak zirela Austria, Alemaniako printze batzu, Holanda, Ingalaterra eta Espainia, Frantziaren kontra. Garai hartan Louis XIV zelarik errege.

XVIII. mendean, bertiz, jada Louis XV. menpean, supran aipatzen den Zazpi Urteko gerla 1756tik 1763 arte iraun zuen, Frantzia, Austria eta aliatuak alderdi batean zirela eta Ingalaterra eta Prusia bertze aldean.

Lehenago Baionan 1694an izenpetu zen notario-aktan ikusten zen bezala (ikus *infra*, nota 9), gerla horiek sustatzen zituzten ere erregeren izenean egiten ziren ohointzak (itsas lasterrak, kurtsak) eta batek bere izenean egiten zituenak (piratakeriak):

"*Les corsaires constituaient en quelque sorte une marine supplétive, leur action est particulièrement importante lorsque la flotte royale n'a pas la maîtrise des mers, ce qui est en général le cas de la flotte royale française aux XVIIe et au XVIIIe siècle. On conçoit que dans les pays marins, comme la Bretagne et le Labourd, la guerre de course ait été importante, elle convenait particulièrement aux marins basques, rétifs à entrer dans la marine royale. Le corsaire est en somme un marin civil qui reçoit du souverain une commission pour attaquer et capturer les navires ennemis, de guerre ou de commerce. Sans aucun doute, les corsaires ont contribué par leurs prises à la prospérité du commerce de Bayonne, ils ont maintenu dans une grande mesure la richesse de St Jean de luz après la décadence de la pêche. Les corsaires bayonnais se révèlent en 1690 avec 40 prises, puis 90 l'année suivante. De 1744 à 1782, Bayonne arma 266 navires corsaires, soit 105 pendant la Guerre de Succession d'Autriche (1744-1748), 148 pendant la Guerre de Sept Ans (1756-1761) et 13 pendant la Guerre d'Indépendance des États Unis (1778-1782). (...)*

"*Johannes de Suhigaraychipi, dit Croisic ou Coursic, est sans doute le plus célèbre des corsaires bayonnais (...). Avec Harismendy il va combattre les Hollandais au Spitzberg, ruine les installations de la baie aux Ours, fait 24 prises. Mais il meurt à Terre-Neuve où sa tombe se voyait encore récemment à*

Placentia : "Ci-gît Johannes de Suhigaraychipy dît Croisic. capitaine de frégate du roi, 1694. Envieux pour l'honneur de mon prince, j'allais en suivant sa carrière, attaquer les ennemis en leur mesme tanière." (...)

Plazentzako hilarrirei buruz ikus 1908ko RIEVEN Rdo HOWLEYk agertzen duen lana. Ikus ere M. CIRIQUAIN GAIZTIARRO in op. cit. 211-214.

E. GOYENECHek, bertiz, Lapurdiko itsas-lasterkarietaz gehitzen du :

"Mais les corsaires de St-Jean- de -Luz, sont justement légendaires. A vrai dire une longue tradition de piraterie les y préparait : en 1536, Haritzague, Somian, Ansogarlo, durent solliciter, pour ce motif, des Lettres Patentes de pardon. Les Luziens gagnèrent la faveur du roi quand, en 1627, avec les Bayonnais, ils forcèrent le blocus de St Martin de Ré en se faufileant sur leurs pinasses et leurs flûtes, tandis que Johanns de Haraneder armait, à lui tout seul, deux vaisseaux. La fin du XVIIe siècle fut marquée par la génération des Chibau, Ducombe, d'Etchepare, etc. Le chevalier d'Amou, fils du bailli du Labourd, se fit corsaire et en 1692 prit 4 vaisseaux en un seul combat. Mais le plus célèbre fut Jean Peritz de Haraneder, armateur de 18 navires, qui amassa grâce en partie à la course contre les Hollandais, la fortune colossale de deux millions de livres, fut anobli par Louis XIV en 1694, devant vicomte de Jolimon de Haraneder, et fut la souche des vicomtes de Macaye." (E. GOYENECHÉ, in *Le Pays basque*, 326-327)

28. Ikus E. GOYENECHÉ in op. cit. 324.or. bakailoaren arrantzaren apaltzeari buruz eta 325.na balearenari buruz.

29. Hona, bertzalde, E. GOYENECHÉk zer dion :

"La morue se pêchait principalement sur le Grand Banc de Terre Neuve. On la préparait soit "verte", soit salée. La pêche à la morue "verte" se pratiquait de février à fin avril. Placentia en était le centre. La première mention de morue pêchée par des Basques remonte à 1512 : durant les XVIe et XVIIe siècles ils pratiquèrent le salage et le séchage à Terre-Neuve. Les Basques y étaient si experts que certains furent recrutés par les Hollandais, leurs concurrents. En 1635 on compte 80 navires morutiers à Saint-Jean-de-Luz, 16 baleiniers et 9 morutiers à Bayonne. En 1679, à Bayonne, sur 2736 matelots, 900 sont morutiers et 760 baleiniers." (in op. cit., 324 or.)

30. Ikerketa sakonago batek eta, bereziki, ustegabeko aurkikuntza berri batek jakinarazten ahal digute hobekiago noiztsu idatziak daitezkeen.


31. Erran beharra dago CHAHOK ere hiru kantu horiek kopiatu zituela. CHAHOkopian aldakuntza ortografikoak agertzen dira. Kantu horiek ez dira nehoiz inprimatuak izan, eskerrak eman beharrak dizkiot F. ARKOTXARI eman didan kopiaz. Hona, adibidez, 1798ko bilduman den *Ternuaco Penac* idazkiaz (O3, artikululu honetan erabiltzen den kodigoaren arabera) zati labur bat :

TERNUAKO PENAK//Untzi batzu salbaturik/Itsassoa passaturik/Arribatu Ternuarat/Behar duten Portuclurat//Ternua da mortu hotza/Eremu triste arrotza/Laboratzen ez den lurra/Neghuan bethi elurra.//(...)Ternuan dire Salbiaiak/Eta lzkimaü etsaiak/Guiza bestia cruelak/Hillik jaten marinetak.//(...) Han ez da behar naghirik/Ez ghezurrez den eririk/han dakite eraghitent/Alferra fetcho eghiten.//(...)" (in A. CHAHO : *Chans populaires de la Navarre et des Provinces Basques*, uterik ez dakar baina 1844 baino lehenagokoa daiteke kopia. Idazki argitaragabea.)

32. Hizki ilunez agertzen dira A, B, C agerkerietan diren aldakuntzak ; ortografikoak : letra larri edo ttipien aldatzeak, adibidez "Beguiz", "beguiz" zelarik ; "u"ren gehitze, orduan azpimarratzen delarik silaba osoa, adibidez "gi", jatorrizko testua "gui" zelarik) ; gaizki ulertuak diren hitzak, adibidez "digula", "diçula"ren ordez ; eta ere transkribitzaileak berak, kasu honetan Elortzak, zalantza bat badela galdera markatuz erakusten duelarik, adibidez "bezain (?)".







Baionako Euskal Erakustokia / Musée Basque de Bayonne. MS 97





8

Carthago in senibus  
 Carthago in senibus  
 Carthago in senibus  
 Carthago in senibus

Carthago in senibus  
 Carthago in senibus  
 Carthago in senibus  
 Carthago in senibus

Mandela in senibus  
 Mandela in senibus  
 Mandela in senibus  
 Mandela in senibus

Ulac in senibus  
 Ulac in senibus  
 Ulac in senibus  
 Ulac in senibus

Mandela in senibus  
 Mandela in senibus  
 Mandela in senibus  
 Mandela in senibus

5

Terniacio Petrac.

Mistic Petrac  
 Mistic Petrac  
 Mistic Petrac  
 Mistic Petrac

Vernia in senibus  
 Vernia in senibus  
 Vernia in senibus  
 Vernia in senibus

Han in senibus  
 Han in senibus  
 Han in senibus  
 Han in senibus

Han in senibus  
 Han in senibus  
 Han in senibus  
 Han in senibus

Teñian sin Saluati  
Bo-Byunian Awa  
Añen bethi muelat  
Milla-pata amandae

Barbarian bithen  
yakutan enhastan  
kithim-guehigo  
Huanan-ky-uhogo

Hango laan, Huanan  
mekelbetan, Sidiorae  
lan kotsyuan, Sidiorae  
milla bakhut-kastan

Byunor-ehpman  
kigobak kiyman  
kaku-kuan, koth, peca  
kangyau, kiu-kina

Hain-guelli, Han-bahan  
bethi-guier, kethi-bihan  
asileguy-guier  
kath-ath-guier

Chilleguon, Cauern  
mhandineth, kethi-guon  
yob-ky-uhogo  
kath-guier

Hankia-bela-guier  
kiguaneth, kethi-guon  
kui-ky-uhogo  
kethi-guier

Camarian-pago, Han-  
gath, kuan, kanti  
dehor, kethi-guon  
kethi-guon, kethi-guon

Uda, kuan, kethi-guon  
kethi-guon, kethi-guon  
kethi-guon, kethi-guon  
kethi-guon, kethi-guon

Gaucon Anukhibidea	
Ternuaco penae, Papius i. Jusque	38
Larranzaco penae	42
Louis XIV. Guicla	45
Donibonico Escora abajatu	48
Jatruill. Sabinao. Anacia	46
Aleguaco Apheliana	46
Donibonico. Laudorica	51
5 <sup>a</sup> Rosa. Hortuaco	48
Aguera. Donaty. vic. de Cadix	43
9 <sup>a</sup> Antonio. D'her. Cadix-tic	44
B <sup>na</sup> Marguira. Besta on	49
Eschagies. utbi on	49
Partiada. Frate. Forta. He	63
Ba. hontaren. anca	67
Louis XV. Semar. Laudorica	70
Dauphin. Geron. amara	78
Aguardiente. Maitequina	73
Besta on, hendayan	75
Hendayan. Landatna	77
Etain. condereina (M. Larij.)	81
Jesuita. local. Dinora	84
Andien. ap. haindura	87
Subel. gaste. Laudorica	94
Donostia. Danion. Emigracion	50
5 <sup>a</sup> Rosa. Luarnabar	99
Lune d. 1808	100
Caharraga 1802	37